

edo kartzelean sartzeko ufengo egunean. Lufikarak galerazi zien nai zutena egitea. Gobernadoreari, lufikaratik iges zijoala, anka bat ausi zitzaion.

### Kaleak garbitzen.

Orain dala gutxi, Ginebra'ko kaleetan anunzio zikin eta lotsagariak jafi ziralta ta *Courrier* izpafingiak argi ta garbi itzezin zuen. Kalean zijoan neskatx bat, bakafik zegoala ikusirik, guraizeak atera ta anunzioa ebakitzen asi zan. Ontan mutil bat datorkio ta neskatxa guraiziak gordetzera dijoa erdi izututa.

—Eizaitz bildurtu, dio mutilak, ori bera egiten ari naiz. Amar gera ta amafen artean Ginebra'ko kaleak garbitzen ari gera. Baderamazkigu iru egun lanean eta orain arte 50 anunzio zikin kendu ditugu. *Courrier* izpafingia irakufi al dezu edo?

—Ez. Anunzioak ikusi orduko, danak kentzea gogoratu zait. ¡Alako nazka eman dute!

—Oso edefki ta aufera: gu beste aldera goaz lan egitera.

### Ta teatroak eta zineak ere bai.

Namur'en zine batean pelikula nabarmen-likitsa erakutsi nai izan dute. Prantzia'ko gobernuak debekatua daukan liburu batetik artu edo atera dute pelikula ori. Gazte katolikoak al zutena egin zuten lege bidez pelikula ori galerazteko, baño alpefik, izena aldatu baitzioten. Teatorra joan ziran gazteak eta iskanbila aundia softu zuten ta nai zutena iritxi ere bai. Berari eskefak, ezta Belgica'n geyago pelikula ori erakutsiko.

### Egiatzko maitasuna.

Abenduko egun batean Jerusalem'en katoliko batzuek Gurutze-Bidea egiten ari ziran. An inguruan zegoen ereje talde batek etzuen noski ondo ikusi au ta ara non asten zaizkioten afika katolikoai. Kalekoak gutxi ziralakoan edo bat bere etxetik asi zan goitik bera burni puskak botatzen, Gurutze-bidea egiten zuten Buenabentura Aita jotzeko asmo gaiztoakin. Ilko bazan ere, onen bizitza gorde nai izan zuen batek ta bere ondora joan zan. Nai zuena iritxi zuen, baño bera iltzeko zorian utzi zuen buruan eman zion burni puska batek.

### Bakoitzak al duana.

Ara India'ko oitura eder bat. Bengala'ko emakumeak igandero elizara dijoazenean eskubete afoz eramaten dute ta Ama Birjiñaren ofietan uzten dute. Meza ondoan misioko beartsuai banatzen zaie arroz ori. Ebanjelioko alafgunaren oparixoa bezin atsegiña izango zaio Jaunari Bengala'ko emakumien arroz eskukada ori.

### Misiolariai amar Miloi.

Erabaki edefa Italia'ko gobernuak artu duana. Txina'n dabilzan misiolari italiafai laguntzeko, amar miloi ematea erabaki du. Amar miloi oiek urtean miloi banaka emango zaizkie. Oraindaño 13 mixio badituzte italiafak Txina'n.

### Katoliko esker-onekoak.

Latefi Elkartu edo Estados Unidos'etako katolikoak bere biziko poza artu zuten, New-York eta Chicago'ko artzobispoak kardenalak egin zituenean XI'g. Pio'k. Beren esker-ona nolabait ageftu nai izan diote Aita Santuari. Efoma'n egingo dan misioetako Erakusketako (exposición) lan aundiak ordainduko dituzte ta ortarako 500.000 dollar, iya 10 miloi lira emango dizkiote Aita Santuari